

BERNEDO

— ARABA / ÁLAVA —

Bernedo herria Arabako hiriburutik 44 km-ra dago, hego-ekialdera. Gasteiztik joateko, Iturritxu auzotik abiatuko gara, Aretxabaletarantz, A-2124 toki-errepidetik, Trebiñu Udan sartu arte, hor B-750 izendura hartzen du eta. Armentia Benta herrian sartzean, Bernedorantz jotzen da, eta B-741 errepidetik egiten dira helmugaraino geratzen diren 23 km-ak. Azken 3 km-ak A-2124 errepidetik egingo ditugu, berriro Arabako lurraldean sartuta.

XIII. mendean, Bernedo Berberiegoko artxi-diakonoaren eskumeneko artzapez-barrutietako bateko burua zen. Nafarroako erregeek pribilegio handiak eman zizkieten herribildu horri: Karlos II.ak eta Karlos III.ak, adibidez, bidesariak eta zenbait aduana-eskubide ordaintzetik salbuetsi zuten. 1476an, Errege-erregina Katolikoen alaian jada, Gaztelako koroaren menpe egotera igaro zen, eta 1490eko maiatzean sartu zuten Gasteiz hiriarren barruan, forua emateaz batera. Martín Gil lizentziatuak 1556an egindako bisita pastorean, *Vernedo* izenaz aipatzen da, elizaren garrantzia hamar benefiziadun edukitzea —horietako zazpi, mantenu osokoak— ahalbidetzen zioten baliabide oparoek islatzen dutelarik. Bernedo udalerria da eta Kanpezu-Arabako Mendialdeko koadrilaren barruan dago

La localidad de Bernedo se encuentra situada a 44 km al Sureste de la capital alavesa. Para acceder a dicha localidad desde Vitoria-Gasteiz, se sale por el barrio de Iturritxu hacia Aretxabaleta, tomando la carretera local A-2124 que, al entrar en el Condado de Treviño, se convierte en la B-750. En la localidad de Ventas de Armentia se toma dirección a Bernedo, para continuar por la carretera B-741 los 23 km que nos separan del destino. Los últimos 3 km transcurren a través de la carretera A-2124, otra vez en territorio alavés.

En el siglo XIII Bernedo era cabeza de uno de los arciprestazgos del arcedianato de Berberiego. Los reyes de Navarra otorgaron grandes privilegios a la villa, como Carlos II y Carlos III, que la eximieron de peajes y de ciertos derechos de aduanas. En 1476 la localidad pasó a la corona de Castilla, reinando ya los Reyes Católicos, quienes la incorporaron a la ciudad de Vitoria en mayo de 1490 y la otorgaron fuero. En la visita pastoral realizada por el licenciado Martín Gil, en 1556, aparece citada como *Vernedo* y queda reflejada la importancia de la iglesia por sus recursos que permitían sostener a diez beneficiados, siete de ellos de ración entera. Bernedo es municipio propio y forma parte de la cuadrilla de Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezuko-Arabako Mendialdea.

Andre Mariaren Natibitatea eliza *Iglesia de la Natividad de Nuestra Señora*

GAUR ANDRE MARIAREN JAIOTZA eliza deritzon horri buruz, XVI. mendean *Andre Mariaren* izenpean zegoela dio Gil lizentziatuak. Herriaren erdian dago, eta beraren oinplano apartak argi erakusten ditu herribilduak XVI. mendean zituen handitasuna eta oparotasun ekonomikoa, eraikin osoa ordukoa baita. Hala ere, XIII. mendeko ponte bat eta, apaingarri naturalista batzuk dituen arren, ezarrera oraindik erromanikoa duen portada bikain bat ere badaude bertan.

Portada harlanduzko horman nabarmentzen da, marko modura. Oso portada garatua da: arku zorrotz samar bat du, baketoi bikoitzaz markoztatua, eta ondoan, landare-

DE LA IGLESIA DE BERNEDO, hoy intitulada de la Natividad de Nuestra Señora, nos dice el licenciado Gil que en el siglo XVI se encontraba bajo la advocación de *Sancta María*. Situada en el centro del pueblo, su magnífica planta muestra la grandeza y el auge económico con el que contaba la villa en el siglo XVI, fecha a la que pertenece el edificio en su conjunto. Sin embargo ha llegado hasta nosotros una pila bautismal y una espléndida portada del siglo XIII, aún románica en su disposición, pero con algunos elementos decorativos naturalistas.

Sobre un muro de sillares resaltado, a modo de marco, encontramos la portada. Muy desarrollada, presenta

motiboz hornituriko arkibolta bat, hosto mamitsu oso naturalistez apaindua; dekorazio hori berriro errepikatzen da bi arkibolta baketoidunen ostean, eta erritmo berari eusten zaio tankera bereko hosto naturalistek apainduriko deskarga-arkuraino. Euskarriak sei zutabe-pare dira, atezaingoen baketoiez eta deskarga-arkuari eusten diotenez gain. Fuste lisoak idulki baten gainean hainbat mailatan ezarritako harroinetan daude bermatuta. Fusteok errematatzen dituzten kapitelen, oso hondaturik dauden arren, bilduma ikonografiko interesgarria osatzen dute.

Ezkerraldean, elkarri aurrez aurre begira ageri diren animaliak bereiz daitezke, bai eta giza irudi bati eusten dioten bi aingeru ere, zenbait erliebe gotikotan azaltzen den gaia, hain zuzen ere; laborantzarekin loturiko eszena bat, ziurrenik mahats-bilketaren irudikapena, eta ehiza-eszena bat ere, narriadurak identifikatzen uzten ez dituen beste motibo batzuk ez ezik. Eskuinaldean, bi piztia

un arco ligeramente apuntado, enmarcado por un doble baquetón, seguido de una arquivolta adornada con motivos vegetales, a base de hojas carnosas muy naturalistas, decoración que se vuelve a repetir tras dos arquivoltas baquetonadas. Este ritmo continúa hasta llegar al sobreaarco, decorado también con hojas naturalistas. Los elementos sustentantes son seis pares de columnas, más los baquetones de las jambas y los que sustentan el sobreaarco. Los fustes, lisos, se apoyan en basas dispuestas en varios niveles y colocadas sobre un zócalo. Los capiteles que los rematan, aunque muy deteriorados, constituyen un interesante repertorio iconográfico.

En el lado izquierdo pueden distinguirse animales afrontados; dos ángeles sosteniendo una figura humana, tema que encontramos en ciertos relieves góticos; una escena agrícola, posiblemente la representación de una vendimia, y una escena de caza, además de otros motivos

Portada / Portada





Portada.
Ezkerraldeko kapitela

Portada.
Capiteles del lado izquierdo



Portada.
Eskuinaldeko kapitela

Portada.
Capiteles del lado derecho

menperatzen ari den irudi hegodun bat; zazpi burutxo kapitela batean, zazpi bekatu kapitalen adierazpide izan daitezkeenak; hegoak zabalik dituen aingeru bat; irudi beldurgarriak; pertsonaia bati hozka egiten dion herensuge bat; jatorrizko bekatuari buruzko eszena bat, eta hilobiaz haraindiko bizitzari buruzko beste bat, non infernua irudikatzen duen aho erraldoi batek giza irudi txikitxoak jaten dituen. Inposta-lerroa kapitelen gainetik doa, baoaren arkubarneratik deskarga-arkuaren azpiraino, gotikoaren eragina iragartzen digun orbel naturalistaz apaindurik. Orbelaren artetik, giza burutxoak, aingeruak, hegaztiak eta beste zenbait motibo azaltzen dira.

Gure Amaren Jaiotzaren elizaren barruan, bataiarri soil bat dago, Arabako tipologiarik hedatuenari jarraitzen diona: esferaerdi-formako ontzi lisoa du, oin zilindriko labur baten gainean. Harroina desagertu egin da, taulamenduaren azpian, ziur aski.

Testua eta argazkiak: RHA

en los que el deterioro hace imposible la identificación. En el lado derecho, una figura alada dominando a dos bestias; siete cabecitas en un capitel, que podrían hacer referencia a los siete pecados capitales; un ángel con las alas abiertas; figuras monstruosas; un dragón mordiendo a un personaje; una escena relativa al pecado original; un tema de ultratumba donde una enorme boca, que simboliza el infierno, engulle pequeñas figuras humanas. La línea de imposta discurre sobre los capiteles desde el intradós del vano hasta debajo del sobrecargo, y se decora con una hojarasca naturalista que nos anuncia los influjos del gótico. Entre la hojarasca asoman cabecitas humanas, ángeles, aves y otros motivos.

En el interior de la iglesia de la Natividad de Nuestra Señora se conserva una sencilla pila bautismal. Sigue la tipología más difundida en Álava, compuesta por una copa lisa semiesférica, sobre un corto pie cilíndrico. La basa ha desaparecido, posiblemente, bajo el entablamento.

Texto y fotos: RHA

Bibliografía / Bibliografía

BILBAO LÓPEZ, G., 1994, pp. 112-113; CASTRO, C. de, 1915, p. 137, fig. 51; LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, p. 107; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1987, pp. 18-19; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J. y MARTÍNEZ DE SALINAS DE OCIO, F., 1988, pp. 37, 71-72; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J. y MARTÍNEZ DE SALINAS DE OCIO, F., 1990, p. 64; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1997a, I, p. 328; PORTILLA VITORIA, M. J., 1968, p. 120; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1968, p. 266, fig. 279-281; PORTILLA VITORIA, M. J., 1983, pp. 60, 70.